

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

216/2022 Foru Agindua, apirilaren 1ekoa, produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko prozedura arautzen duena.

Ukrainaren inbasioa, joan den otsailean hasi zena, ondorio garrantzitsuak izaten ari da esparru guztietan, eta energiaren prezioak Europan pairatzen ari diren krisia larriagotu du, batez ere 2021eko bigarren seihilekotik aurrera.

Errepide bidezko lurreko garraioaren esparruan, gatazkak izugarri igoarazi du erregaien kostua –partida horrek jarduera horren kostuen 100eko 30 inguru hartzen du–, eta beste partida batzuetan ere (pneumatikoak, lubrifikatzaileak, etab.) kostuak igotzen ari dira.

Jarduera horren funtsezko partidetan kostuen igoera horrek dituen dimentsioa eta azkartasuna igoera horiek bezeroei berehala helarazteko egiturazko zailtasunak dituen garraio jardueraren segmentu batean gertatzen ari dira, eta kalte nabarmena eragin dute segmentu horren bideragarritasun ekonomikoan.

Bestalde, Errusiak Ukraina inbaditu izanak ziurgabetasuna areagotu du, Errusiarekiko eta Bielorrusiarekiko merkataritza fluxuak jaitea ekarri du berekin, baita lehengai energetikoen eta ez-energetikoen prezioek gora egitea ere, enpresek jardun behar duten testuingurua areago zailtzeraino. Horrela, elektrizitatearen eta gasaren prezioen hazkunde handiak nabarmen igoarazi du hainbat produkzio sektoretarako funtsezkoa den horniduraren kostua, eta sektore horien artean Covid-19aren krisiak gehien kaltetutako sektoreetako batzuk daude. Zenbait kasutan, kostu energetikoen igoera horrek arriskuan jar dezake epe laburreko likidezia premien estaldura.

Ukrainaren aurkako eraso militarrek erregaien prezioan eragin duen igoerak enpresetan eta familietan duen eragina berehala arintze aldera, martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuak, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan premiazko neurriak onartzen dituenak, aparteko eta aldi baterako hobari bat arautu du produktu energetiko petrolifiko jakin batzuen prezioan.

Horrela, energia iturri horien mende-mendeko diren ekonomia sektoreetako enpresek, eta bereziki garraio sektoreak, berehala igarriko dute beren egoera ekonomikoan prezioen ezohiko eta bat-bateko igoeraren eragina arintzen zaiela.

Hobaria gainerako herritarrei zabaltzearen helburua egoera honek etxeetako ekonomietan, zuzenean eta zeharka, eragiten duen inpaktua murriztea da, kontuan hartu behar baita ekonomia horiek dagoeneko oso kaltetuta egon direla Ukrainari eraso aurretik energiaren prezioek izan duten hazkundeagatik eta Covid-19aren krisiak oraindik dituen ondorioengatik.

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 216/2022, de 1 de abril, por la que se regula el procedimiento para solicitar el anticipo de la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos.

La invasión de Ucrania el pasado mes de febrero está generando importantes consecuencias en todos los ámbitos, agravando la crisis de los precios energéticos que se está sufriendo en Europa, especialmente desde el segundo semestre de 2021.

En el ámbito del transporte terrestre por carretera, el conflicto ha derivado en un aumento del coste de los combustibles extraordinario, una partida que supone del orden del 30 por 100 de los costes de esta actividad, añadiéndose además la elevación de costes que también se está produciendo en otras partidas como neumáticos, lubricantes, etc.

La dimensión de este aumento de costes en partidas esenciales dentro de esta actividad, y la rapidez con la que se ha producido, se focalizan en un segmento de la actividad del transporte que tiene una dificultad estructural para trasladar de manera inmediata estos aumentos de costes a sus clientes, lo que ha derivado en un deterioro extraordinario en la viabilidad económica de este segmento.

Por otro lado, la invasión rusa de Ucrania ha desencadenado un incremento de la incertidumbre, restricciones a los flujos comerciales con Rusia y Bielorrusia y mayores precios de materias primas energéticas y no energéticas que hacen más difícil el contexto en el que las empresas deben operar. Así, el incremento sustancial en los precios de la electricidad y el gas aumentan el coste de un suministro esencial para una variedad de sectores productivos, incluyendo algunos de los más afectados por la crisis de la Covid-19. En algunos casos, este incremento de los costes energéticos puede poner en riesgo la cobertura de las necesidades de liquidez a corto plazo.

Con el fin de mitigar de manera inmediata el impacto en empresas y familias de la escalada del precio de los carburantes que ha provocado la agresión militar a Ucrania, a través del Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, se ha regulado una bonificación extraordinaria y temporal en el precio de determinados productos energéticos de carácter petrolífero.

Así, las empresas de los sectores de la economía fuertemente dependientes de estas fuentes de energía, y especialmente el sector del transporte, verán amortiguado de forma inmediata el efecto, sobre su situación económica, de la subida extraordinaria y repentina de sus precios.

La extensión de la bonificación al resto de la ciudadanía persigue reducir el impacto que el contexto provoca, directa e indirectamente, en las economías domésticas, ya muy afectadas por el crecimiento de precios de la energía anteriores a la agresión a Ucrania y por los efectos que todavía tiene la crisis de la Covid-19.

Hobariaren bideragarritasuna bermatzeko eta hura ahalik eta azkarren ezarriko dela ziurtatzeko, kudeaketan kolaboratu behar dute, nahitaez, bai erregaien txikizkako hornidura instalazioak ustiatzeko eskubideen titular direnek eta bai hobariaren xede diren produktuen azken kontsumitzaileei zuzeneko salmentak egiten dizkieten enpresek. Horrela, kontsumitzaileek, hobariaren onuradun diren aldetik, zuzenean jakin eta egiaztatu ahal izango dute zer efektu duen hobariak produktuen erosketan, eta, nolana ere, kolaborazio ereduaren iraunkortasuna bermatuko da konturako aurrerakinen eta itzulketen sistema eraginkor baten bidez.

Beren aldetik, hobariaren kudeaketan kolaboratzaile direnek egiten diren hobarien itzulketa eskatu ahal izango dute, eta, era berean, 2022ko apirilaren 15a baino lehen, konturako aurrerakin bat eskatu ahal izango dute hobariaren gehieneko zenbatekoagatik. Aipatutako Errege Lege Dekretuaren 15. artikuluko 4. apartatuaren arabera, hobariaren gehieneko zenbateko hori kolaboratzaileek 2021ean saldutako eta hobariaren eremu objektiboan sartutako produktuen hileko batez besteko bolumenaren 100eko 90 izango litzateke, lege dekretu horretan ezarritako terminoetan. Hala hobarien itzulketak nola haien konturako aurrerakinak ez dira enbargatu eta/edo konpentsatuko zerga zorrak ordaintzeko bitarteko gisa.

Era berean, aipatu den 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluko ezartzen du foru administrazioak direla eskumena dutenak Euskal Autonomia Erkidegoan hobaria jaso duten produktuen hornidurei dagozkien hobarien eta konturako aurrerakinen itzulketak izapidetzeko.

Ondorioz, foru agindu honen bidez, kolaboratzaileen konturako aurrerakinak kudeatu eta itzultzeko prozedura arautzen da; halaber, behar den funts hornidura ere arautzen da, hain zuzen ere, aipatu den 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 20. artikuluko arabera Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiona.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Produktu energetiko jakin batzuen azken prezioaren aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko prozedura.

Bat. Xedea eta aplikazio eremua.

Foru agindu honen xedea da arautzea produktu energetiko eta gehigarri jakin batzuen salmenta prezioak izango duen aparteko eta aldi baterako hobariaren aurrerakina eskatzeko garaian hobari horren kudeaketako kolaboratzaileek jarraitu behar duten prozedura. Hobari hori martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren I. tituluko VI. kapituluan dago araututa (Errege Lege Dekretua, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan premiazko neurriak onartzen dituen).

Bi. Hobaria kudeatzeko kolaboratzaileak.

Foru agindu honen ondorioetarako, aurreko lehen apartatuan aipatutako hobariaren kudeaketako kolaboratzaileetat hartuko dira erregaien txikizkako hornidura instalazioak ustiatzeko eskubideen titular direnak, bai eta hobariaren xede diren produktuen azken kontsumitzaileei zuzeneko salmentak egiten dizkieten enpresak ere, produktu horien hornidura Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten denean.

Hiru. Konturako aurrerakina eskatzea.

1. Aurreko bigarren apartatuan aipatutako hobariaren kudeaketan kolaboratzaile direnek konturako aurrerakina eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari, 2022ko apirilaren 15a baino lehen, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituen martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluko 3. paragrafoan ezartzen den bezala.

Para garantizar la viabilidad de la bonificación y asegurar la máxima rapidez en su implementación, es imprescindible la colaboración en la gestión de los titulares de los derechos de explotación de las instalaciones de suministro de combustibles y carburantes al por menor, así como de las empresas que realicen ventas directas a los consumidores finales de los productos objeto de la bonificación. De esta manera, los consumidores y las consumidoras, beneficiarios y beneficiarias de la bonificación, conocerán y podrán comprobar directamente su efecto en la adquisición de los productos, garantizándose en todo caso la sostenibilidad del modelo de colaboración por medio de un eficaz sistema de anticipos a cuenta y devoluciones.

Por su parte, los colaboradores en la gestión de la bonificación podrán solicitar la devolución de las bonificaciones efectuadas, pudiendo asimismo, con anterioridad al 15 de abril de 2022, solicitar un anticipo a cuenta, por el importe máximo de la bonificación que, de acuerdo con el apartado 4 del artículo 15 del citado Real Decreto-ley, correspondería al 90 por 100 del volumen medio mensual de productos incluidos en el ámbito objetivo de esta bonificación vendidos por dicho colaborador en el ejercicio 2021, en los términos por aquel fijados. Tanto las devoluciones de las bonificaciones como el anticipo a cuenta de las mismas no serán objeto de embargo y/o compensación como medio de extinción de las deudas tributarias.

Asimismo, el artículo 17 del mencionado Real Decreto-ley 6/2022, determina a las administraciones forales como competentes para la tramitación de las devoluciones de las bonificaciones y anticipos a cuenta correspondientes a suministros de productos objeto de bonificación que hayan tenido lugar en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En consecuencia, mediante la presente orden foral, se regula el procedimiento para la gestión y devolución de los anticipos a cuenta de los colaboradores y su correspondiente provisión de fondos, que de conformidad con lo previsto en el artículo 20 del citado Real Decreto-ley 6/2022, corresponda a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud

DISPONGO

Artículo único. Procedimiento para solicitar el anticipo de la bonificación extraordinaria y temporal del precio final de determinados productos energéticos.

Uno. Objeto y ámbito de aplicación.

El objeto de la presente orden foral es regular el procedimiento para solicitar el anticipo de la bonificación extraordinaria y temporal en el precio de venta al público de determinados productos energéticos y aditivos regulada en el Capítulo VI del Título I del Real Decreto-Ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania, por parte de los colaboradores en la gestión de dicha bonificación.

Dos. Colaboradores en la gestión de la bonificación.

A efectos de esta orden foral, tendrán la consideración de colaboradores en la gestión de la bonificación a que se refiere el apartado uno anterior, quienes ostenten la titularidad de los derechos de explotación de las instalaciones de suministro de combustibles y carburantes al por menor, así como las empresas que realicen ventas directas a los consumidores finales de los productos objeto de la bonificación, cuando el suministro de dichos productos tenga lugar en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Tres. Solicitud del anticipo a cuenta.

1. Los colaboradores en la gestión de la bonificación a que se refiere el apartado dos anterior podrán solicitar a la Administración tributaria, con anterioridad al 15 de abril de 2022, el anticipo a cuenta a que se refiere el apartado 3 del artículo 17 del Real Decreto-ley 6/2022, de 29 de marzo, por el que se adoptan medidas urgentes en el marco del Plan Nacional de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la guerra en Ucrania.

2. Hobariaren kudeaketan kolaboratzaile direnek «Zergabidea» plataformatik aurkeztu beharko dute aurreko 1. apartatuan aipatzen den eskaera, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen Foru Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen duenak, ezarritakoarekin bat.

Era berean, eskaera hori aipatutako kolaboratzaileen borondatezko ordezkari direnek ere aurkeztu ahal izango dute, baldin eta Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien erroldan izena emanda badaude, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 61. artikuluan ezarzen duen bezala.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta 2022ko martxoaren 31tik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2022ko apirilaren 1a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (2007)

2. La solicitud a que se refiere el apartado 1 anterior se presentará por los colaboradores en la gestión de la bonificación desde la plataforma «Zergabidea», con arreglo a lo previsto en la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

Así mismo, dicha solicitud podrá presentarse por los representantes voluntarios de los mencionados colaboradores, inscritos en el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Fiananzas al que hace referencia el artículo 61 del Reglamento de gestión tributaria y de desarrollo de las normas comunes sobre actuaciones y procedimientos tributarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 5/2020, de 21 de abril.

Disposición final única. Entrada en vigor.

La presente Orden Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y producirá efectos desde el 31 de marzo de 2022.

San Sebastián, a 1 de abril de 2022.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (2007)